

SAGASTIA-MANZANAL

Sagastietako jardueren egutegi praktikoa:
ekaina, uztaila eta abuztua.

SAGARDOAREN LURRALDEA - 01/07/2014 · 14:51

Sin comentarios



Garai honetan egin beharreko lanak hauek dira:

EKAINA:**LURRA-ONGARRIKETA**

Nitrogenoa bigarren aldiz botatzeko garaia da.

Horrez gain, belarra moztu behar da arbola inguruetan.

ARBOLEN FORMAZIOA

Udako kimaketa egiten hasi gintezke.

Arbolaren indarra gutxiagotu nahi badugu, udako kimaketa liberan egingo dugu. Bestalde, indartzea nahi

badugu, ilgoran egingo dugu. Ardatzaren nagusitasuna aseguratu behar da, azken 15 zm-ak konpetentzia egingo lioketen adarrik gabe utzita.

Horrez gain, azpiko adarrak kendu eta angelu oso itxiarekin datozenak eta baita ardatzarentzat konpetentzia izango direnak ere. Horrez gain, altsumak ere kendu eta oinarrian fruta dakarten adarrak despuntatu.

Urte bat edo biko sagastietan: ilgoran kimatu.

Sagasti helduetarako: liberan kimatu.

GAITZAK ETA IZURRITEAK

Carpocapsaren lehen generazioa dugu orain. Tranpetan 4 bimeleta harra aste beteko epean azaltzen badira, orduan tratatu behar da.

Zorriaren erasoia izan liteke eta adi, arbolarik gazteenetan bereziki.

UZTAILA-ABUZTUA:**LURRA-ONGARRIKETA**

Aurrez egin ez den kasuetan, belarra moztu.

Hurrengo neguan sagasti berri bat jarri behar badugu, lurra prestatzeko garairik egokiena da.

ARBOLEN FORMAZIOA

Uztalean udako kimaketa egin.

GAITZAK ETA IZURRITEAK

Sagar harraren bigarren generazioa hasten da uztalean. Feromona tranpa bat jartzea beharrezkoa da, jakiteko bigarren generazio hau noiz datorren, eta modu horretan jakingo dugu noiz egin tratamenduak izurritearen aurka.

Zorri lanigeroaren azalpenaren gorakada ematekotan, gehien bat urteko adarretan arbolen goiko aldean, tratamendu bat ematea komenigarria izango liteke. Tratamendu hau ematerakoan ur bolumen handiarekin egin behar da, produktua arbolen zirrikitu guztietan sartu ahal izateko.

Iturria: Sagardoaren Lurraldea Boletina 35**Egilea:** Aitor Etxeandia – SAGARLAN S.L.**Tags:** actividades manzanal, manzanal, Sagardoaren Lurraldea Boletina, Sagastia, sagastiko lanak, udara, verano*Anterior post*

La parte vieja de Tolosa, fortaleza de la antigua sidra. Tolosako Alde Zaharra, aspaldiko sagardoaren gotorleku.

Siguiente post

Responsable de ventas en una sidrería. Sagardotegiko salmenten arduraduna.

Sagardoaren Lurraldea

Kale Nagusia 48
20115 Astigarraga
t: 00 34 943 550 575
f: 00 34 943 559 575
info@sagardoarenlurraldea.com
www.sagardoarenlurraldea.com**RSS Feed****Twitter****Facebook**

Buscar / Bilatu

Categorías

Azokak-Ferías**Ekitaldiak-Eventos****Errezetak-Recetas****Esperientziak-Experiencias****Formazioa-Formación****Gastronomia-Gastronomía****Historia-Historia****Kultura-Cultura****Lehiaketak-Concursos****Museos-Museoak****Prensa-Prensa****Sagarra-Manzana****Sagastia-Manzanal****Sidra-Sagardoa****Sidrerías-Sagardotegiak****Turismoa-Turismo**

Post Recientes

Sagardoetxeako
Dokumetazio Zentroa:
kartelak.Sagardoa munduan:
sagardoaren kulturaren
inguruko bideoak,
tweet-ak, blog-ak, bisitak...Sagardoaren Hiztegia:
sagarrekin egina eta
sagarren ahogoak.Sagar deshidratatua
txokolatearekin.

Tu comentario / Zure komentarioa

Nombre *requerido*

Email *requerido*

Web

Enviar



Sagarra deshidratatua bada ere, egunero sagar bat jatea... benetan osasungarria da.

Comentarios recientes

Ion Azpiazu en **Sagardoa eta txotx-aren erritua BBC TRAVEL-en.**

J.M de Amassorrayn en **2014KO TXOTX IREKIERA. KALAKAN taldeak irekiko du txotx bolada berria.**

Kalakan abrirá mañana la nueva temporada de txotx | NON SERVIAM en **2014KO TXOTX IREKIERA. KALAKAN taldeak irekiko du txotx bolada berria.**

Sagardoaren Lurraldea en XIV. Kirikoketa Besta Arizkunen, azaroaren 2an.

agandamin en XIV. Kirikoketa Besta Arizkunen, azaroaren 2an.